


Astekaria

BARREN
n
elgoi



**Nolakoa imaginatu
duzu Euskadi?**



garajea
ASTI GARRAGA



San Frantzisko, 53. Tel. 74 01 86

Ziklomotore eta motorren konponketa Ur441i4k esto4teko

eta salmenta Motoserrak tekt4p poof

- ✘ Desbrozadorak
- ✘ Neumatikoak
- ✘ Bizikletak

LOZTE GUGANA!

ACCENTATU ZAITEZ

Hiru, lau eta bost ateko bertsioak.

1.445.000 ptatik*.

Gainera Hyundaik 3 urteko garantia

eta 24 orduko asistentzia eskaintzen dizkizu.

Accentatu zaitez.

Zatoz zure kontzesionariora.



BERTSIOEN ARABERAKO EKIPAMENDUAK: Airbag, alboetako babes egitura, aire egokitua, direkzio lagundua, atzeranzko ispifu elektrikoa, maletgia eia depositoa barrutik zabaltzeko aukera, antena elektrikoa, eserleku eta gerriko erregulagarriak, ixte zentralizatua, teiho igogailu elektrikoak, alzekn burupausagailuak, irratikaset estereoa.

1300 eta 15000 cc bitarteko MOTOR1ZAZIOAK, 82 eta 90 z.ko potentziarekin.

Injekzio punluanizdun 12 balbulatako motorrak.

HYLJF1DR1

BANATZAILE OFIZIALAK: GIPUZKOA (ELGOIBAR): MENDARO AUTOAK, S.A. K/ OIaso, 25. 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa). Tel 74 32 00. GIPUZKOA (MENDARO): MENDARO AUTOAK, S.A. Errep. Nazionala 634, Km. 52. 20850 MENDARO (Gipuzkoa). Tel 75 50 72. GIPUZKOA (DONOSTIA): MENDARO AUTOAK, S.A. Zurriola Etorbidea, 16 Behea. 20002 DONOSTIA (Gipuzkoa). Tel. 28 33 33.

ARGITARATZAILEA:

Elgoibarko Izarra.

LAGUNTZAILEA:

Eigoibarko Udala.

ZUZENDARIA:

Alberto Agirreazaldegi.

HIZKUNTZA ARDURADUNA:

Anjel Ugarteburu.

ERREDAKZIO KONTSEILUA:Iñaki Arrieta, Antton Bergara,
Edurne Bilbao, Rosa Iriondo,
Jose inazio Sarasua.**KAZETARIAte**

Ainhoa Lodoso,

Jasone Osoro.

MAKETATZAILEAK:

Maite Rementeria,

Edu Sanz.

PLIBLIZITATEA:

Nekane Etxaniz.

ADMINISTRAZIOA:

Josune Fernandez,

M. Angeles Ortuoste.

KOLABORATZAILEAK:itziar Agirregomezkorta, Ana
Aizpiri, Pello Aizpurual, Gotzon
Arrieta, Pello Arrieta, Belen
Arrizabalaga, Jon Barandiaran,
Asier Etxaniz, Felix Etxeberria,
Itziar Fernandez, Koldo Galdona,
Jose Mari Goldos, Ina Gcrragarza,
Gotzon Garate, Joseba Gorosabel,
Xabier Gorriti, Alfonso
Maite Iriondo, KOKOE, Edurne
Korta, Enrike Larrañaga, Imanol
larrariaga, Nerea Lodoso, Jesus
Mari Makazaga, Iñala
Odrizozola, Jose Inazio Sarasua,
Olga Unzúlla, Miryam Villasante,,
Aitor Zabaleta, Yulen Zabaleta.**BANAKETA ARDURADUNA:**

Imanol larrañaga

INPRIMATEGIA:

Gertu koop. E.

(Zubillaga Oñati)

TIRADA: 3.300 ale**LEGE GORDAILUA:** SS-1.038/92**ISSN:** 1133-021X**elgoiBARRENez du bere
gain hartzen aldizkarian
adierazitako esanen eta
irizien erantzunkizunik.**kutxx fundaziew
ifund.cidn IEartita
p

GaLetzen

Karl Jasper (1969) filosofoak esaten du, filosofia edozein erreliteraren aurrean galderak egitea dela eta galderen erantzunak aurkitzen saiatzea. Gizaki modernoak badu egiazko askatasuna lortzeko amets sakona. Baina amets hori ez zaio beti askapen bihurtzen. Ez dira gutxi, lehengo ohiturak eten ondoren, beren bizitza morrontza, ideologia eta adostasun berrietara lotzen dutenak, beren bakarkako edo gizartearekiko erantzukizunean hazi gabe. Gizaki argitsuagoa eta erantzulegoa sortzen ikusi ordez, sarri askotan beren buruen eta beren giza garapenaren jabe ez diren morrol asean, erdaraz "esclavos satisfechos" delakoen jaiotza ikusten ari gara. Gazte dezenteren bizierak kezkatzen gaitu batipat, hain hondatua eta errelitatetik hain urruti.

- Ez al da hau askatasunik gabeko "askapena"??

- Hainbeste gauzaren morroi direnek, nola egin dezakete etorkizun librea'?

- Gaurko gizakiak ez ote du "libreago egingo duen egia" ezagutu behar?

Gaurko biziunearen adierazgarriak ilunena, agian, itxaropen-krisia da. Azken urteotako historiak ederki desmitifikatu du zibilizazio modernoaren oinarria den aunerapenaren mitoia. Promesa ikusgarri haiek ez dira bete. Onizatea sortu dugu, baina baita marjinazioa ere, langabezia, bakardadea, masifikazioa,

norberekoikeria, desberdinkeria. Bizitza luzeagoa egin dugu, baina mamigabekoa eta azalekoa. Uste hau ari da pixkanaka zabaltzen: gaurko gizon-emakumeek ez dutela asmatzen, bizia ulertu eta zoriona bilatzen. Kultura rnodernoaren krisia, neurri handi batean, helmugarik gabe gelditzen ari den gizartearen krisia da, gizadiarentzako etorkizun hobea bilatu nahian helmugarik eta erreferentzia punturik gabe gelditzen ari den gizartearen krisia.

Non aurkitu gizaki hobe baten alde lanean jarraitzeko indarra eta sentidua?

Nola berreskuratu gizakiak beharrezkoa duen itxaropena?


Gaurko gizon-emakumeek behar dutena ez ote da, "biziarekin topo egitea"?

Gaurko gizakiak ere ezagutzen du erruaren esperientzia, baina ez daki berarekin zer egin. Ahal dela, bere errua ahaztera jotzen du, gaitz guztiak gizarteari egotziz edo ingurukoena jokaera zuzengabeari. Nolahala librea izan nahi du, baina ez dio bere erantzunkizunari heltzerik nahi. Baina hori da engainaturik bizitzeko erarik onena, norberaren egiatik aldendurik barne-berritzeko ahalmenik aabe.

Gizakiak behar duena ez ote da bere errua aitortzea, bere burua barkatua sentitzea, bere erru eta miseriekin onartua izatea eta berriro ere bere jatortasunera etortzea?

Enrike Larrañaga

*Eusko Jaurlaritzako
Kultura Foru
Aldundiak eta
Elgoibarko Udalak
diruz lagundutako
aldizkaria*



Zergatik ez dute IMI goizetan ere zabaltzen?

Bertako arduradunak esan digunez, goizetan ez zabaltzearen arrazoia sasoi horretan IMIko getetan klaseak egoten direla da.



Guraso batek deitu digu

Elgoibarren droga arazoa (trafikoa eta kontsumoa) pil-pilean dabilela salatzen. "Betikoek" behera egin badute ere (alkohola ezik, noski) "pastillak" modan jarri omen dira eta astebukaeratan benetan "kuadro" penagarriak ikusten omen dira Maala alde horretan. "Ez al dago arazo honi aurre egiteko intentzioarik? Interes ekonomikoak garrantzitsuagoak al dira?"

111111.1

- Emakume batek deitu digu pasa den larunbatean, hilak 19, egon zen Udal Txistulari taldearen kontzertua benetan aproposa izan zela esateko. Gainera, jendea dantza egitera animatu zen eta dena oso polita irten omen zen.
- Ikastolako 8. mailako haur batzuen gurasoak etorri dira Regina txalotu asmoz. Benetan polita izan omen zen Santa Zezilia Egunean horrenbeste haur kalejiran ikustea.

"KAS: PNV asesino"

orrelako esaldi bat irakurri zitekeen eliza aurrean egon zen pankarta batean eta irakurri ondoren ezin egon ixilik, beste ikuspuntu batetik gertakizunak aztertu gabe.

Niretzat, azkenengo hilketaren arduraduna ez da EAJ ezta ERTZAINZA ere. Oraindik pistola eta indarkeriaz enfrentamendu bila jarraitzen dutenak eta "eguneroko patxara ederrean" bizi eta indarkeria txalotuz eta segitzera animatzen dituztenak dira ARDURADUN eta ERRUDUN bakarrak. Badirudi, bai lehenengoak eta bai besteak gustura dabiltzala. "Eguneroko patxara ederrean" bizi direnak "Indarkeriaren Jaungoikoarengan" uzten dute beraien ideien defentsa eta, aldi berean, "Indarkeriaren Jaungoikoa" harro sentitzen da bere fededunekin: mirestua eta adoratua.

Jakina, horrela sentitzen dena armak uztea zaila da zeren eta pistolarik gabe hiritar normala bihurtzen da, ez da besteak baino gehiago, gu bezalakoa da, guk jokatzen dugun terrenoan jokatu behar du, batzuetan irabazi eta besteetan galduaz, ezer inposatu gabe.

Baina horixe, jokaera honek

eguneroko lan konstantea eskatzen du. Herri bat eraikitzeke behar den lan ixil eta konstantea.

Aukera daukadan bakoitzean eskatuko dizuet enfrentamenduaren bidea jorratzeari uko egiteko. Fantasiaren mundua utzi eta errealitatearekin bat egiteko.


Juanjo Baztarrika

Bakoitzari berea

Duela hilabete pasa, Errosario kaleko jai egitarauaren esku programan 1919an ospatu ziren jaiak buruzko artikulu bat azaltzen zen. Idatzi hura 1956. urteko San Bartolome jaietako programatik aterata zegoen eta "E" rekin sinatuta. Aurtengo programan artikulu bera Luis Ezenarrok sinatuta argitaratu da.

Eskutiz honen bidez zera argitu nahi dut: Ez 1956an eta ez aurrean, ez dudala nik artikulu hori idatzi. Agian J.M. Etxanizek idatzitakoa izan daiteke. Baina ez Luis Ezenarrok, programan zetorren bezala.

Luis Ezenarro Osoro





07 Musika izan denez aste honetan kultur ekitaldien ardatz, aproposa iruditu zaigu **Udal Musika Bandakoek** bidalitako argazki hau argitaratzea. 1975. urtean Eibarko Unzaga Plazan ateratako erretratua da, San Andres jaietan. Ohi denez, eibartarrak Trinitate jaietan etortzen dira gure herrira eta elgoibartarrak San Andre-setan egiten dute bisita.

Garai hartan **Jose Zubiaurre "Balle"** zen Bandako zuzendaria eta guztira 36 musikajole agertzen dira. Hauexek dira orduan Musika Banda osatzen zutenak: Atzetik hasita, ezkerretik eskumara: **Pedro Zapata, Antxon Azpiazu, Jose Del Valle, Antton Izagirre,**

Jose Inazio Izagirre, Juan M. Martinez, Paco Cuesta, Julio Bueno, Victor Zubiaurre, Bittor Alberdi, Txomin Mujika, Jose Inazio Sarasua, Luis Mari Zubiaurre eta Pedro Regil.

Bigarren ilaran: **Pedro Sanchez, Felipe Igartua, Moises Agirre, Felipe Palacios (t), Aurelio Diego, Moises Guillo (t), Juan Mota, Julian Iriondo, Jesus Mari Sarasua, Emilio Bores (t), Felix Lodoso zuzendari ordea, Jose Izagirre eta Jose Angel Zubiaurre (t).**

Aurrean eserita: **Iñaki Goñi, Jose Antonio Osoro, Fernando Azpiazu, Jose Novoa, Jose Maria Ruiz, Jose Zubiaurre zuzendaria, Juan Eguren, Angel Riaño (t) eta Ricardo Gorriti.**




**P
U
B**

ARRATS

Zelaikoa Plaza. MENDARO. Tel. 75 50 58



Antonio Antunes (Portugal)
Nazioarteko maisu bikaina
(2510 Elo Fide)



Glenn Flear (Ingloterra)
Nazioarteko Maisu Bikaina
(2505 Elo Fide)



Rafael Alvarez (Euskadi)
Nazioarteko Maisua
(2485 Elo Fide)



Reynaldo Vera (Cuba)
Nazioarteko Maisu Bikaina
(2485 Elo Fide)

U



Fir

, VNS

ivjU

dira eta gehienek bizpahiru hizkuntza menperatzen dituzte. Baina gai-nontzean pertsona arruntak dira.

Izendapenak eta titulazioa

"Elo Fide" puntuazioa neurtzeko erabiltzen den izendapena da. Zenbat eta partida gehiago irabazi orduan eta Elo Fide altuagoa lortzen da. Altuena Anatoly Karpov-ek dauka, 2800ekin. Hainbat Elo Fide lortuz gero, izendapen bat eskura-tzen da. Altuena Nazioarteko Maisu Bikain izendapena da, azpitik Nazioarteko Maisua dago eta azpitik, Fide Maisua.

Jokalari gaztetxoak

Nazioarteko Txapelketa honen bueltan, Estatu mailako 20 bat haur, denak Ipar aldekoak, tartean Espainiako txapeldun jubenila den Jesus

Barrd, Boris Zlotnik maisu errusiarraren eskutik klaseak jasotzen ari dira. Zlotnik injeniari aeronautikoa da. Errusiako enpresa militar batean lan egin zuen, URSSeko txapeldun jubenila izandakoa da eta zerbitzu militarra bete ondoren xakean bete bete aritzea erabaki zuen. Moseuko Kirol Eskola Nagusiko katedraduna da eta UNEDeko xake eskolako zuzendari teknikoa. Honez gain, Espainiako juhenilen selekzionatzailer estatala da. Estatu leku ezberdinetan hurrei klaseak ematen dihardu eta bide batez haurrak selekzionatzen. Egunero izaten dute klasea, goizez talde batek eta arratsaldez beste batek. Ariketa mentalak egiten dituzte, eta beraien artean eta irakaslearen aurka ere partidak jokatzen dituzte.

XAKEA ELGOIBARREN

Elgoibarko Nazioarteko Xake Txapelketa Euskadiko Xake Fedemzioraren baitan sortu zen Euskadiko eliteko jokalaririk bultzatu eta bide batez ELO puntuazioa hobetuz ranking-ean gora egiteko. Txapelketa itxia da, gonbidapen bidez har daiteke parte bertan. Lehen bi edizioetan 7ko maila izan zuen, iaz Skoaeta aurten 10ekoa. flonez gain, Boris Zlotnik maisu errusiarrak Estatu ipar aldeko 20 bat hurrei klaseak eman dihardu. Iaz Anatoly Bykhouski, errusiarrak hau ere, izan genuen irakasle. Partidak Kultur Etxean burutzen ari dira eta sarrera dohainikoa da. Xake zaletuok, beraz, eliteko jokua gertuagotik ikusteko aukera paregabea dugu.

florrelako ekitaldia gertutik dugunok badakigu zer nolako ahalegina egiten ari diren hainbat erakunde. Hain nire eskerrik beroenak, Eskerrak baita, partidak arhitratzen jardun duten Lukas Iruretagoiena eta Edurne Zabaletari, Ramon Mujika Udala Kirol Mknikariari eta nola ez, eskerrak gure bihotzeko Zuhi-Ondo eIkarteari, hari esker xake zaletuok hainbat txapelketaz gozatzeko aukera izaten dugulako, gaurkoan ari garen nazioarteko txapelketa honetaz ezezik, maila apalagoko beste txapelketa batzuek gozatzeko aukera ere eskaintzen digulako.

Tornas Conde

Zubi-Ondo eikarteko kidea
(Erredakzioan itzulia)



• IE Boris Zlotnik errusiarrak xake ikastaroa ematen ari da 20 bat haurri.

Fotere

OKINDEGIII
OPIILDEGIA

San Frantzisko, 4
74 07 35



San Frantzisko 12-14,7e2. 74 05 49



San Bartolome 18
74 08 49



40W4+

40*

Santa Klara -22
Er 74 26 32



RDO ETA PATTARRA
PATATA SALMENTA

Etixerainoko
banaketa

Errosario 18
Ts* 74 02 37

Udaietako hizkuntz eskakizunak

Udala euskararen erabilpenaren eredu eta bultzagarri izan behar da, eta elgoibartarron nahia euskara gure eguneroko hizkuntza izatea delarik eta administrazioa bera herritarren zerbitzura egonik, herritarrekiko harremanetan gaztelaniaz soilik ezin balia daiteke.

Guzti honetaz jabeturik, Elgoibarko Udalak bere langilegoa euskalduntzeko asmoz, hizkuntz eskakizunen plangintza jarri zuen martxan. Langileak bere lana euskaraz egiteko behar duen euskara maila finkatzen du hizkuntz eskaizunak. HE Udaletxeko lanpostu guztiek dute baina langile guztiek ez dute bere lanpostuaren HE derrigorrez bete beharrik. HE batzuk derrigorrezkoak dira: lanpostu horietan dauden langileek epe jakin bat dute perfila eskuratzeko, horregatik lanorduen barruan euskara ikasteko aukera dute. Baina aukera mugatua da: langile bakoitzak ikastordukreditu bat du bere euskara mailara iristeko.

1990.eko azaroaren 30ean izandako plenuan, Udaleko lanpostuei hizkuntz eskakizunak eta derrigortasun datak izendatzea erabaki zuen Udalbatzak.

Bost urteko epealdirako helburuak jartzerakoan, 1986. urteko bizilagunen errolda hartu zen kontuan eta Elgoibarko euskaldunen proportzioa %63koa izanik, udal lanpostuen %63ari derrigorrezko perfila jarri zitzaion. Gaur egun indize hori %68,6ra igo da, hau da, 67 lanpostutik 46k dute derrigortasun data.

1991. urteko otsailean Udalak hitzarmena sinatu zuen HAEE (IVAP)ekin. Hitzarmen honen helburua HAEE eta Elgoibarko Udalaren arteko lankidetzazehaztea eta araupetzea zen

Elgoibarko Udal Administrazioiko langileek hizkuntza-maila egokia lor zezaten.


Gaur egun, derrigorrezko hizkuntza eskakizuna duten 46 lanpostuetatik 7 hutsik daude eta beste 4 langile adinagatik plangintzatik kanpo geratu dira. 91/92 ikasturtean hasi ziren udal langileak euskara ikasten. Plangintzan sartu eta derrigortasuna duten 35 langileren artean, Euskaltegian edo Barnetegian ikasten aritu ondoren, 23k gainditu dute euren perfila, hau da, %65,7ak. Bost langilek 2. HE izanik 1.a gainditu dute eta beste bi langilek 3.a izanik 2.a gainditu dute. Ikasturte honetan 11 langile ari dira euskara ikasten.

Plangintza hau gauza berria izanik, langileek euren kezka eta beldurrak izan dituzte, baina orokorrean Udal langileen jarrera ona izan da eta inoiz ez dute euskararen aurkako jarrerarik azaldu. Hala ere izan dira arazoak: ikasteko ohitura falta, azterketen zailtasuna, ordezkapeak egiteko oztopoak...

Bost urteko epealdia 1995.eko uztailean bukatzen denez, orduan egingo du Udalak emaitzen balorapena.



KRISTINA ZUAZUBISKAR
Udaletxeko euskara Teknikaria



CRISTALERIA
ELGOIBARRESA C. B.

13,141.4,;,e44 c.1,141;ukoak
01,44 ko"e41|6.64
E4,14,-(a. dft44•424/Lak

Urasandi 12 behea
Tel-Fax: 74 04 89

TXURI BELTZ

71 lbellum

San Franzisko 38

Zer daukazu funtanarien euskalduntzeaz?



AMAGOIA ARANBURU

28 urte, Udaltzaingoko idazkaria

Oso ondo iruditzen jata horrelako postuetan euskera erabiltzeko bihar dan moduan. Neri hirugarren perfila eskatzen die eta gainditu dot.



PEDRO MATA

46 urte, aparejadorea

Zuzena iruditzen zait. Aparejadore posturako hirugarren perfila eskatzen dute, tekniko guztietarako bezala. Nik lehen perfila gainditua daukat.



AMAIA GABIOLA

27 urte, Ongizateko administraria

Ondo, baina jende askori gertatzen jake euskeraz jakin arren azterketa ez gainditzia. Sistemia igual ez da egokixena. Nik nere perfila etara naban.



JULIAN IRIONDO

40 urte, merkataria

Administrazioko Iangile askok jendearekin tratatu behar duenez, gutxienez elkarrizketa mailan euskera jakin behar dute. Minimoa behintzat,



EUGENIO FERNANDEZ

30 urte, Udaletxeko elektrizista

Nik uste dut lanpostu bakoitzari tokatzen zaion perfila eskatu behar zaiola. Niri ez didate eskatzen baina hala izanez gero ikasiko nuke.



PILAR ETXEBERRIA

39 urte, etxeoandrea

Euskal Herrian gaudenez jakin behar dute. Gainera, erreztasunak dauzkate; ikasteko liberatu egiten dituzte... Ez dago ez ikasteko aitzakiarik.

11111 11111WA

"Jubilatuekin borbetK

PARTAIDEAK

- Ramon Maiztegi
- Itziar Konde
- Juanito Gorostiza
- Felisa Bergaretxe
- Julian Iriondo
- Rosario Garate

MODERATZAILEA

Luis Mari Iriondo

Abenduok 1, ostegunc
Artatsoldeko 7 eton
1<111,11t EIXELAV1

ANTELI-TZAILEA: Elgar•a o zarra K.E.

LAGUNTZAILEAK: Eggib9r•koUciala

Gipuzkoako Foru Aldundia

Jubilatuei buruzko mahaingurua

Eluobarko Izarra Kultur Elkarteak jubilatuei eta hauen arazoei buruzko mahaingurua antolatu du datorren hilaren leian, arratsaldeko 7etan Kultur Etxean. Sei hizlari, Juanito Gorostiza, Itziar Konde, Julian Iriondo, Felisa Bergaretxe, Ramon Maiztegi eta Rosario Garate. Jubilatzerakoan sortzen diren arazoak, psikologikoak, bakarcladea... familia. diru eta osasun arazoak aztenuko dituzte. Gai hauez gain, aisialdia nola igarotzen duten, Benidonneko fenomenuari eta heste zenbait gairi buruz hitz egingo dute. Moderatzaile lanetan Luis Mari Iriondok jardungo du.

■ Txistulariak eta Dantza Eskolakoak Eibarren

Haritz Dantzari Taldea Eibarren izango da larunbatean, hilak 26, arratsaldeko 7,30etan "Plazara Dantzara" ikuskizuneko partaide gisa. Elgoibarko Udal Txistulari Taldea eta Inazio Bereziartua Dantza Eskolakoekin batera, Eibarko Kezka eta Debako Gure Kaiko dantzariak arituko dira. Ikuskizun hau abenduaren 31ko Gabon Zahar Azoka egunean burutuko da Elgoibarren eta urtarrilaren 7an Debako Zoro Ferian.

111 Gurasoentzako filmea emango da hilaren 29an

"Zinea eta Osasuna" programaren barruan Udaleko Drogomenpekotasunen Prebentzioaren eskutik, Institutuko eta Lanhide Heziketako ikasle eta hauen gurasoei zuzendutako bigarren saioa izango da datorren asteartean, hilak 29. Egun honetan "Corazon indomable" filmea proiektatuko da ikasleentzat goizeko 9etan eta 12etan eta gurasoentzat arratsaldeko 7etan. Bi emankizunak Herriko Antzokian izango dira. Lehen saioaren arrakasta erabatekoa izan zen, 120 bat gurasok hartu baitzuen parte.



IMHko 45 ikaslek 93-94 ikasturteari dagokion gradu osteko diploma jaso zuten hil honen haseran egindako ekitaldian honako adarretan: Kalitate Gestiozintzan, Tekniko Komertzialean eta Fabrikazio Sistema Flexibleak deritzonengan. Argazkian, diploma jaso zuten ikasle taldea hezkuntz arduradunekin. Bestetik, hamalau ikaslez osatutako italiar talde batek astebete eman du Elgoibarren gure henia eta inguruak eta errealtate industriala eta soziala ezagutzen. Italiarrak Boloznako ENAIP ikastetxeko zuzendariarekin eta bertako proiektuen koordinatzailearekin, Elgoibarren izan diren denboran Erreininta Makinaren Institutua eta enpresa batzuek ikusi dituzte. Horrez gain, bi Institutuen arteko kooperazio programarekin jarraitzeko aukera aztertu dute bi ikastetxeek.



400 haur baino gehiago bildu ziren joan den larunbatean Mintxeta-Txankakua Atletismo Taldeak antolatutako Gipuzkoako Pistako Atletismo txapelketan. Mintxetako pistetan Gipuzkoa osotik etorritako haurrak zeuden, batez ere, Deba bailarakoak. OHoko 5. mailatik BBBko 2. mailara bitarteko neska mutilak pisu jaurtiketan, luzera jauzian, alturan, 60metrotan eta 1000 inetrotan aritu ziren. Goizean zehar kadeteetan bakarrik Euskadiko txapelketan parte hartzeko gutxieneko hamasei marka lortu ziren.

Abenduaren la, IIII ESare n eguna

Urtero bezala abenduaren leian HIESaren nazioarteko eguna ospatuko da. Elgoibarren arazo hau bereziki bizi dugunez, gaisotasun hau dutenekin elkartasuna adierazi eta, bide batez, prebentzioaren bidetik urrats berriak ematea da Errotatxoren nahia. Egun honetarako Errotatxok hainbat ekitaldi antolatu ditu. Goizeko 10etatik Iera Plaza Handian eta arratsaldeko 5etatik 7etara bitartean Maalan eta San Frantzisko iturrian mahai infor-

matiboak jarriko dira. Arratsaldeko 7etan San Frantzisko iturrian kontzentrazioa egingo da "Bada garaia, orain eta kitto" lemapean, eta aldi berean, Maalan, San Frantzisko iturrian eta Plaza Handian OHOk 7. eta 8. mailako ikasleek egindako txartelak jarriko dira. Era berean, HIESaren sinboloa den lazo gorria etxebizitzetako balkoietan jartzeko deialdia zabaldu nahi du Errotatxok herritar guztien artean.



Musika ekitaldiak aste osoan zehar izan dira han eta hemen Santa Zezilia, musikarien zaindariaren eguna ospatzeko. [nazio Bereziartua musikeskolakoen kontzertua, Txistularien eta dantzarien saioa, Ikastolako haurren kalejirak eta argazkian dakusagunez, Itxaropena abesbatzakoak arkupeetan kantuan izan ziren. Datorren urtean ere, ziur egon ez dela falta izango musikarientzako hain garrantzitsua den egun hori ospatzeko musika ekitaldink.

■ Guraso eskola martxan

Iaz bezala herriko gurasoei zuzendutako "Guraso Eskola" martxan jarri da. Guztira 100 gurasok eman dute izena, 25eko lau taldetan antolatuko direlarik. Talde batzuk hannabostean behin elkartzeko dira eta beste batzuk hilean behin. Helburua guraso eta seme alaben arteko harremanak hobetzea da. Hurrengo saioa datorren asteartean izango da, hilak 29, arratsaldeko 3etan eta 7etan Kultur Etxean.

■ Txotxongiloak helduentzat

Datorren hilaren leian Theaterra antzeztalde alemaniarrek txotxongilo saioa aurkeztuko du Herriko Antzokian gaueko 22,15etan. "No tengas miedo de los grandes animales" izenburuko lan honetan txotxongiloak plastizkoz eta antzerako materialeekin eginda daude. Helduei zuzendutako saioaren sarrera 350 ptakoa da.

■ Bandaren aparteko kontzertua igandean

Udal Musika Bandak Santa **Zezilia** musikarien zaindariaren **izeneko** ekitaldiak ospatuko ditu astebukaera honetan. Igande honetan hilak 27, goizeko 10,30etan Santa Klarako komentuan meza izango dute hildako Bandako kideen alde. Mezan elizako musika joko dute. Segidan ohizko kalejira egingo dute kaleetan zehar eta 12,30etan aparteko kontzertua emango dute Herriko Antzokian. Jose Antonio Osororen zuzendaritzapean honako obra hauek joko dituzte: Oberto (Verdi), In the mystic land of Egypt (Ketelbey), Jurassic Park (Williams), Der Jungle Glockner (Huggens) eta Stockholms Balsorkester (Rydberg). Bost obra hauek lehendabiziko aldiz joko dituzte. Eguna bukatzeko kide guztien arteko bazkaria izango dute eguerdiko 2,30etan. Hurrengo kontzertua datorren hilaren 1ln emango dute Eibarren.

■ Udaletxetik irratsaioa egingo du Loiola Irratiak

Loiola Irratiak "Herriz herri, Elgoibar Gaur" irratsaio berezia eskainiko du Iarunbat honetan, hilak 26, Udaletxeko Aretotik. Alberto Gorritibereak zuzendutako irratsaioa zoizeko 11,45etan hasiko da FMko 99,8an eta ordu t'erdiko iraupena izango du. Gonbidatuak Udal Gobernu Batzordeko alkatea eta beste bi zinegotzi, HBko eta EAKo zinegotzi bana, herriko hñr kazetari, tartean BARREnekoak, eta irakaskuntza ertaineko 10 ikasle izango dira. Saioan hirigintzako gaiak, sozialak, laboralak eta gazteriarekin zerikusia dutenak aztertuko dira. Herritarrek eztabaidan parte hartzeko aukera izango dute entzule gisa Udaletxeko aretotik bertatik hitz eginda edota etxetik 81 Q8 57 zenbakira deituta.

Elizbar Ubilava**"Xakea hizitza bezalakoa da"**

44 urte dituen gizon hau georgiarra da nahiz eta duela bost urtetik Madrilen bizi den. Filosofia eta kazetaritza ikasketak egin zituen baina bere benetako afizioa betidanik xakea izan da. Afizioa ezezik baita ofizio ere. Elizbar Ubilavak hainbat eta hainbat txapelketa eta torneo irabazi ditu. Gaur egun jokatzeko jarraitzen duen arren, entrenatzailea ere bada.

Beste baztuei berak ikasitako teknikak irakasten dizkie, bere esperientziak erakutsitakoa azalduz. Elizbar Karpov-en analista izan zen. Ez da gutxi. Elgoibar benetan gustuko du, ahal duen guztietan, gonbidatzen duten guztietan bisitatxo bat egiten du. Aurten, Nazioarteko IV. Xake Txapelketa Elgoibarren izanik, ezin falta.

- Zer da xakea?

- Nik beti parekatu izan dut xakea bizitzarekin. Bizitzan Iagunak daukazazu, sentimenduak, arriskuak, borrokatu egin behar da zerbait lortzeko. Xakea ere horrelakoa da. Antzerki bat da. Taula mundua da eta piezak biztanleak. Baina xakean, bizitzan ez bezala, zure esku dago hein batean gauzak aldatzea, gauzen norabidea. Halere, xakean ere arau batzuk daude eta horiek jarraitu behar dituzu.

- Psikologia asko behar da,ez?

- Bai, dudarik gabe. Bizitzan bezala, hutsegite baten ondorioz zigorra dator kizu, era batera edo bestera. Gauzak onartzen jakin beharra dago, datorrena datorrela, galtzen denean ere. Oso garrantzitsua da norberak daukan jarrera. Zenbat eta ziurtasun gehiago izan zure buruarengan, are hobeto. Indartsuago sentitzen zara, gauzak argiago ikusten dituzu, bestearen jokaldia aurreikus dezakezu... Eta lagunak zurekin izateak ere indar asko ematen du.

- Eta indar fisikoa?

"Zure hutsegiteen ondorioz galtzen duzunean buelta asko ematen diozu".

- Bai. Presio handia jasan behar da, tentsioa... guzti horrek desgaste handia dakar. Zenbat eta ahalmen handiagoa izan fisikoki, orduan eta prestakuntza hobea daukazu.

- Intelijentea izan behar da ala intelijente egiten al du xakeak?

Xakeak zure barnean gauzak atontzen, ordenatzen laguntzen dizu. Ahalmen berezi bat ematen dizu beti zaudelako gauzak hobetu nahian, irtenbide eta jokaldi

berriak asmatu nahian, etengabeko superazio bat da. Xakeak hezitu egiten zaitu, zure sentipenak, zure bizitza, zure izakera...

- Xakean zergatik galtzen da, bestea hobea delako ala norberak hutsegin duelako?

Bietatik dago. Arerioa askoz hobea denean galtzeak ez zaitu gehiegi arduratzen. Zure hutsegiteen ondorioz galtzen duzunean, aldiz, buelta asko ematen diozu guztia-ri, hondoratu egin zaitez-

ke, askoz zailagoa da horrelako egoera bati aurre egitea.

- Agresiboa izan behar al da xakean jokatzeko?

- Agresibitate minima bat behar da, baina sorkuntza bezala ulertuta. Sormena behar da eta alde horretatik bakoitzak barruan daukan guztia azaldu behar du.

- Zuriak ala beltzak?

- Berdin zait baina zuriekin irabaztea errazagoa dela esaten da, tenisean bezala lehenengo jokatzen duenak abantaila baitauka. Beltzekin lehenengo berdindu egin behar duzu eta gero gailendu egin behar zara.

- Elgoibar asko gustazen zaizula esan didate.

- Bai, asko. Lagun asko ditut. Badauka nola-baiteko antza Euskal Herriak Georgiarekin. Georgian oso ezaguna da Euskal Herria. Teoria baten arabera orain 3.000 urte georgianoak eta euskaldunak herri bakar bat ziren; denborarekin banatu egin ziren. *Gora* hitzak, adibidez, mendia esan nahi du georgianoz eta badaukagu *Gurea* deitzen den eskualde bat ere.

Emakume 1E_Gllel b11°11L® Allnear

Urtebeteko geldiunearen ondoren, Mendaroko Emakume Taldeak berriz ere lanari ekitea erabaki du. Datozen asteotan, hainbat hitzaldi izango ditugu entzungai. Hasteko, drogomenpekotasunari buruzko gaiak aukeratu dituzte eta lehengo hitzaldia azaroaren 29an, asteartea, izango da.



Drogomenpekotasunei buruzko hitzaldiekin ekin dio berriz **martxari emakume taldeak**

Duela hamasei urte sortu zen Emakume taldea. Emakume batzuk herriko apaizarekin elkar-tu ziren, etxetik kanpo lan egiten ez zuten emakumeak aberasteko helburuarekin. Inguruko herrietako hainbat pertsonen laguntzarekin lortu zuten beraien taldea antolatzea bai eta euren helburuak lortzeko bideak finkatzea ere. Hasera batean ernakumearekin eta familiarekin lotura zuten hitzaldiak antolatu zituzten eta sexua, elikadura, pedagogia, familiaren ekonomia, alkohola... Hitzaldi hauek oso harrera ona izan zuten herritarren artean. Gainera, orduko hizlariak ez zuten dirurik jasotzen hi-

tzaldien truke, baina Mendaroko bizkotxo eta txokolatea ematen zitzaaien opari gisa. Hitzaldi hauek bazkal ostean izaten ziren, emakumeek haurrak eskolara eramane eta libre izaten zuten denbora tartean, hain zuzen ere.

Hitzaldi hauetaz gain, eskulan ikastaroak ere antolatu

• • • 9 "") e • • •

"Telebistaren eraginez eta jendearen pasibotasunaren ondorioz azken urteotan antolatu dituzten ekintzek ez dute erantzunik jaso"

11146 V 41 •

zituzten: papel maxe, makramea, eskaiolak margotzea... Urtero, Gabon inguruan, sukaldari bat etortzen zen eta honek bere plater bereziak egin ondoren, zozketatu egiten ziren.

Halere, guzti honek izan zuen bere alde ez hain positiboa. Haserako hitzaldi eta ikastaroek oso harrera ona izan zuten arren, azken urteotan, telebistaren eraginez eta jendearen pasibotasunaren ondorioz, antolatu izan dituzten ekintzek ez dute eran-tzun onik jaso.

Hori dela eta. Mendaroko Emakume Taldeak urtebete sabatikoa igaro du. Halere, guraso batzuren eskaerari erantzunez, drogomenpekotasunari buruzko saio batzuk antolatu dituzte.

irteera Larraskandara

Oraingoan ere Arno Guraso Elkartek irteera bat antolatu du joan nahi duten haur zein guraso guztiei zuzendua. Honako hau datorren igandean, azaroak 27, izango da eta aukeraturiko mendia, berriz, Larraskanda. Animatzen diren guztiei gogora arazi nahi zaie ibilaldiaren irteera goizeko 9etan izango dela

Drogomenpekotasmaari buruzko zikloa

Mendaroko Emakume taldeak hainbat ekitaldi antolatu ditu datorren astartean, azaroak 29, hasita. Honela aipatu egunean hitzaldi batekin ekingo zaio drogomenpekotasunari buruzko ihardunaldieri. Gaia, "Arazoaren egoera hemen eta orain" izango da eta hizlaria Txus Congil. Hitzaldia Kultur Etxean izango da, gaueko 9etan hasita.

Kultur eta kirol elkarteentzako dirulaguntzak

Denbora gutxi barru, Mendaroko Udalak 1995. urteko Aurrekontu Orokorra landuko du. Hori dela eta, Mendaroko kultur eta kirol elkarteek 1995. urteko ekitaldirako dirulaguntzak jaso ahal izateko, ondoko dokumentazioa aurkeztu beharko dute abenduaren 31a baino lehen:

- Eskaera.
- 1995 urteko ekintzen zerrenda.
- 1995 urteko aurrekontua.

Teodore Tilanietari omenaldia



Datorren igandean, hilak 27, Teodoro Unzueta ospetsuari amenaldia egingo zaio. Teodoro herrian hain ezaguna dugun errementari eta kantaria da. Honako omenaldi hau Mendaroko Abesbatzak antolatu du. Besteak beste, hara hona, egun horretarako antolatu diren ekintza ezberdinak:

Eguerdiko 12etan, Meza Nagusia izango da Garagarzako elizan. Ellzkizunean Mendaroko Abesbatzak parte hartuko du eta Teodorori oroigarri bat emango zaio. Eguerdiko 2etan: Elizkizunaren ostean, Abesbatzaren bazkaria izango da, era honetara Santa Zezilia eguna ospatuz.



Kontzezio Eguna

Ohiturari jarraiki, aurten ere Kontzezio Eguna ospatuko da abenduaren 8an. Egun horren bueltan hainbat ekintza antolatu dira. Hona hemen egitasmoaren nondik norakoak: goizeko 11etan, Meza izango da Garagarzako elizan. Eguerdiko 12etan, berriz, Piano kontzertu bikain bat entzuteko aukera izango da Xabier Lizaso pianojolearen eskutik. Ondoren, ohi denez, ardo goxoa eta pastak banatuko dira hurbiltzen diren guztien artean.

ASPALDIKO KONTUAK

curtieifid emfra: *galeetal eta aftdd 9auo:*

Mendaron aski eza-guna da Kontzezio egunean, Meza nagusia eta gero, gailetak eta ardo goxoa jateko ohitura. Ohitura hau oso zaharra bada ere, geldiuene baten ostean, 1961. urtean berreskuratu zen eta gaur arte iraun du. Garai batean, Kontzezio Egunerako jende guztia konfesatu egin behar izaten zen. Hori dela eta, pare bat egun lehenago, apaizak base-rritarrak konfesatzen hasten ziren. Eta Kontzezio Egunean, herritar guztiak joan ohi ziren mezarara.

Sasoi hartan, Jauna hartzeko baraurik egon beharra zegoen; horregatik, denak goizeko zazpitan joaten mezarara, jaunartzera. Meza ondoren, kafea, gailetak, bizkotxoak, erroskilak jaten eta ardo goxoa edaten ziren

Garagartzako Plazan, barauari bukaera emateko, noski. Hamabietako mezarenak joaten ziren arren, ia inork ez zuen jaunartzen.

1961. urtean, gazte talde baten ekimenez, ohitura hau berrezarri zen. Horrela, zortzietako meza eta gero, gailetak eta ardo goxoa banatzen hasi ziren. Mezaren ondoren, liburu azoka prestatzen zen eta arratsalde partean ekin-tza ezberdinak egiten ziren. Behin, Xabier Lete eta Lourdes Iriondo etorri ziren kantaldi bat eskaintzera.

1964. urte inguruan, Kontzezio Egunean debutatu zuen Mendaroko Gazteak dantza taldeak.

Egun hau beti izan da oso garrantzitsua mendarotarren egutegian eta aurten ere izango dugu Garagartzako plazan ardo goxoa edan eta gailetak jateko aukera.



lyoldiceot Pacolegi

Mendaroko Txistulari Taldeko partaidea

11 Noiztik zabilta txistua ikasten? **1** Urtebete izango da datorren urtarrilean, nahiz eta lehen ere jotzen nuen.
11 Zer gertatu da txistuarekin Mendaron? **1** Betidanik egon den zaletasuna galdu egin da. Orain dela 30 urte Agustin Berasaluze, Agustin Lazarobaster eta Gregorio Vives ziren txistulariak eta hoietatik, eta gero etorri zirenetatik ere, Agustin izan dugu aita.

Zeinek merezi ditu ohoreak?

Agustini eta ondorengoei esker Mendaroko Gazte Taldeak bizirik iraun du, bai eta euskal kultura mantentzeagatik ere.

11 Zein proiektu dago? **1** Zazpi lagun gabilta orain Mutrikuko andererio batekin.

11 Gogoko duzun beste instrumenturik? **1** Edozein.

Musika guztia atsegin dut.

11 Emakumea, langilea, ezkondua, ama eta txistua.

Konpatiblea al da dena? **1** Bai, dena. Bakoitzak berorren buruari ere denbora emon behar dio.

11 Zer da gogorrena? **1** Gogorra ez, baina latzena lanera joatea da.

11 jendea aurrean, Mendaroko Gazte Taldearekin jotzeko prest?

Bai, horixe da gure asmorik haundiena.

"Gazteon eta Udaletxearen arteko harremanak beti izan dira urrunak"

Azken aldian Mendaroko gazteak elkartu eta lanean hasi dira orain arte egon den pasibotasuna hautsiz. Horretarako, bederatzi laguneko talde bat sortu da zuzendaritza lanak egiteko. Bertan, kuadrila bakoitzeko ordezkari bat dago. Guzti hau azaldu asinuz, Soraiarengana jo dugu eta ondoko kontu hauek azaldu dizkigu.

• **Zer da gazteen inguruan sortu den anabasa hau?**

4 Gurutzpe desagertu denetik gazteok ezer egiteko aukerarik gabe geratu gara. Betidanik izan gara Mendaroko gazteak nahiko pasiboak eta Mendaro herri txikia izanik ez dugu aukera askorik bilatzen. Hori dela eta gazteon artean bildu eta zuzendaritza bat sortu dugu zerbait egin asmoz.

• **Gurutzperen lekua betetze-kotan?**

- Ez, talde hau gazteei begira sortu da. Gazteok eskatzen ditugun gauzak bete asmoz. Gurutzpe herritar guztiena zen, denori begira zegoena. Hala ere, Gurutzpek antolatzen zituen hainbat ekintzekin jarraitzeko asmoa dugu.

• **Hasi al zarete zerbait egiten? Zein da zuen helburua?**

- Oraingoz gazteon artean elkartu gara eta zuzendaritza bat sortu da. Gure lehenengo helbu-

ria gazteak biltzeko lokal bat lortzea da, gure ekintzak aurrera ateratzeko. Izan ere, jubilatuek lortu dute lokal bat eta guk ere eskubide berdina daukagula iruditzen zaigu.

• **Ahal izanez gero, zer aldatuko zenukete Mendaron?**

- Herritar guztiontzat ekintzak antolatu eta lehengo ohitura zaharrak berreskuratuko genituzke. Bestalde, Udaletxe eta gazteen arteko erlazio eta harre-

"Gure lehenengo helburua gazteak biltzeko lokal bat lortzea da".



man bat hasi eta lortu nahi genuke, horrela "herri" bat sor dadin.

• **Aurrera aterako al da? Itxaropenik ba al duzu?**

- Bai, esperantza baita galtzen den azkenengo gauza. Hala ere, gogor lan egin behar dela garbi daukagu eta horretarako prest gaude. Nahi duguna lortu arte ez dugu etsiko.

• **Zer esango zenieke Mendaroko gazteei? Eta hain gazte ez direnei?**

- Guztien laguntza beharrezkoa dela, beraz, denon parte hartzea eskatzen dut, denok batera gauzak errazago lortuko baititugu.

Eta hain gazte ez direnei, gazteon erabaki eta iritziak errespetatzea eta ahal duten neurrian laguntzea eskatuko nieke.

kiliBARREN

Kolaboratzaileak: Joseba Etxeberria, Aitziber Gurrutxaga, Iraide Loiola, Oihana Tarragual, Alaitz Vives, Garbiñe zabala.



Mendaroko Udalaren dirulaguntzarekin argitaratua

ala

zabal

"Ei Mundo"ko berriematea

G Zein izenburu jarriko zenioke zure bizitzari buruzko artikuluari?

> "Konstantziak beti ematen ditu bere fruituak."

• **Zenbat orrialdetan esplikatu zenuke zure bizitza?** **1** Orrialde erdia nahikoa da.

• **Zein albiste irakurri nahi zenuke bihar?** > Bosniako gerra amaitu dela.

• **Eman duzun Elgoibarko notiziarik penagarriena?** **i** Langileak enpresetatik kaleratuak izan direla.

• **Eta, zein albiste eman nahi zenuke bihar?** **1** Arriortuak auto lantegia jarri duela Elgoibarren.

• **Nondik hasten zara egunkariak irakurtzen?** **1** Haseratik, editorialetik.

• **Zenbat egunkari irakurtzen dituzu?** Denei ematen diet errepasotxo bat.

• **2.300 milioi tokatuko balitzaizkizu?** BIZI!!

• **Eman al zenuen botua azken hauteskundeetan?** > Bai.

• **Zein kirolari izan nahi zenuke?** > Martina Navratilova.

• **Zer galdetuko zenioke Jesulin de Ubriqueri?** **1** Ea heriotza zezen plaza baten aurkitu nahi duen.

• **Zer da publizitatea?** > Gaur egun beharrezkoa den onura publikoa.

• **Aukeratu:**

T5 ala A3? **1** A3.

Correo ala Egin? **1** Biak dira beharrezkoak.

Calleja ala Euskitze? Euskitze.

Egunkariak ala aldizkariak? > Egunkariak.

• **Mundua egunkari batean sartzeko bezain txikia al da?** > Ez.

• **Ezagutuko al dugu munduaren azkena?** **1** Guk ez.

• **Zein galderei ez zenieke erantzungo?** **1** Bizitza pribatuari buruzkoei.

• **Zeini ez zenioke inoiz gezurrik esango?** Batzuetan beharrezkoak dira gezur txikiak.

• **Zer da adierazpen askatasuna?** **1** Gauzak esateko aukera izatea, besteen askatasuna kontutan izanik.

• **Kazetari batzuk mehatxatuak izan dira.** **1** Gaur egun ebitaezina da.

• **Kazetari betiko?** **1** Nahiz eta lanbidea izan ez, beti eramango dut nire barruan.

IMANOL LARRAÑAGA



XAKE TXAPELKETA

Laugarren urtez xake munduk

Herrian jo du aldaba

iritsi zaigu arreta haundiz

begiratzeko bolada

maisur handien abilezien

testigu izango gara

begirakunen ikara

isiltasun zirrara

buruaren kirola **da**

zortzi egunez hara zer degun

kultur etxeko ganbara:


mugimenduen paradisia

estrategien islada (Bis)



GERMAN MEABEBASTERRE

Txy



ALUMINIOZKO AROZTEGIA

POLIURETANOA • P.V.C.

• MISTOA (EGURRA- ALUMINIOA)

J.M. Linazasoro, 9.
Tren .eltoki ondoan

FAX 75 62 28 MENDARO

Eguneroko errealdiak
San Frantzisko 17. Tel. 74 05 33-36 39

Txakurrak identifikatu beharko dira urte bukaerarako

1995eko urtarriletik aurrera, hilabetetik gorako txakur guztiak "transponder" edo mikrotxip izeneko piezatxo elektronikoen bitartez identifikatuak egon beharko dira. Era berean, Txakurraren Osasun liburuxka baten jabe izan beharko dira eta Euskal Autonomi Elkartearen Animaliak Identifikatzeko Erroidea Orokorrean eman beharko dute izena.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza eta Naturagune Saileko Abeltzaintza zerbitzuak identifikatzeko programaren biltutako datuak Gipuzkoako Animalien Erroldan sartuko ditu. Informazio hori udaletako txakur erroldak osatzeko erabiliko da.

Identifikazio lanak, hau da, mikrotxipak jaretzea, Txakurraren Osasun liburuxka egitea eta txakurrak erroldan sartzea

Gipuzkoan lanean diharduten albitariaren esku utziko da eta zehazki Etxe Animalietan Especializatutako Albitariaren Gipuzkoako Elkartea (ETXAAGE) biltzen dituen albitariaren esku.

Programaren kostua txakurren jabeen kontura da. Erabilitako materiale guztiagatik (mikrotxipa, Txakurraren Osasun Liburuxka etab.), mikrotxipa ezartzeagatik eta agiri guztiak betetzeagatik, 1.000 ptako tarifa



• is Identifikazio mikrotxipa jaretzeak 1.000 ptako kostua du.

ezarri da.

Txakurraren jabea arduratuko da erroldan egin beharreko aldaketak garaiz egiteaz eta errolda eguneraturik edukitzeaz. Hau da, txakurra hil bada, lapurtu badiote edo galdu egin bada, jabeak erroldatik atera behar du. Zerbitzu hau doan da. Haatik, eskualdaketa ematen denean, hau da, lehendik mikrotxipez identifikatua dagoenean

txakurraren jabea aIdatzteak, 1.000 ptako kostua clattka. Bestetik, aurtengo erroldaratze orokorretik kanpo txakurrak identifikatu behar izanez gero, 2.500 pta ordaindu beharko dira.

Haseran esan bezala, txakurrak identifikatuak behar dute egon 1994ko abenduaren 31rako, bestela, jabeek isuna jaso dezakete.

ETXAAGE INGURUKO ALBITARIAK

- Javier Zañajon Lizarralde (Azkoitia) T^r 150934
- Xabier Iribar Geonaga (Azpeitia) ^{II} 50288
- Humberto Nogueira Gomez (Bergara) v 762797
- Julen Arano Garitagoitia (Eibar) 127415
- M.Jesus Blanco Feliz (Eibar) D 121986

Jose Elozegi, 105
20 016 DONOSTI

San Viator, 2
48970 BASAURI

BEROGAILUEN INSTALAKUNTZA

• GAS NATURALA •

• PROPANOA •

GAS INSTALAKUNTZA


Dei egiguzu (943/39 11) (94) 426 37 29 telefonoetara

ANOTS LAN

Psikologia eta Logopedia

VFlizketa-hizkuntza
e/Alasiak
f/Disfoniak
VIrakurmena-idazrmena
rakaskuntza teknikak

Toribio Etxeberria 8 rt 10 26 91



Santa Klarako instrumentuak (4)


- Santa Klarako monastegian egon den azken organu klasikoa 1906an egin zen.
- Organua Bartzelonako "Alberdi eta Marti" organu fabrikanteek egin zuten. Aurrekontua 9.000 ptakoa izan zen. Haseran 3.000 pta ordaindu behar zituzten eta gainontzekoa lana amaitzean.
- Organu berriari 20 urteko garantia eman zioten, suteak edo ustegabekoak kontuan hartu gabe.
- Sei hilabeteko epea eman zen lana amaitzeko, bi hilabetez luza zitekeen epea ustegabekoren bat gertatuz gero.
- Baldintzak ez ziren bete. Kostua 8.000 ptara jeitsi zen, organu zaharraren hodiak aprobetxatu baitziren eta xirulategi nagusiaren orde z hamabostena jarri baitzen.
- Organu berri hau eta beste zenbait obra (sakristia konpondu, hormak margotu, koruko aulkiak berritu...) egiteko Sor Placida Maria eta Jesusena Uribe klaratarak 15.209 pta eta 83 zentimo jarri zituen bere patrikatik.

E Sor Placida elgoibartarra Santa

Klarako komentuan sartu aurretik Lorenzo Soduperekin ezkonclua egon zen. Ez zituzten seme-alabarik eduki. Arjentinan bizi izan omen ziren eta han diru piskat egin zuten. Alargundu zenean klaratarra izateko erabakia hartu zuen eta 48 urtez bizi izan zen Santa Kalarako monastegian. 1906an botu solemneak egin zituen eta komunitatearen baimenez harrizko hilobi bat eraiki zuen elizako aldare aurreko harmailen ondoko zoluan. Hilobi hartan, bere senarra zen Lorenzo Sodupe eta aitagarreba Justo Sodupe hilobiratu zituen.

- Dirua komentuko obretan eta aipaturiko hilobian gastatu ondoren, pobretasuna aukeratu zuen, bizimoduztat. 1957ko urriaren 5ean, Sor Placidak ehun urte bete zituen egun berean, ikastetxearen inaugurazioa egin zen. Handik egun gutxira hil zen Sor Placida.
- Sor Placidak oparitutako organuaren hodiak eta teklatura Areatzako parrokian daude eta altzaria Izurzako elizan, Santa Klarako komentu berriko kaperan ez baitzen sartzen.

PELLO ARRIETA



Cristina Mugerza

(1890-1965)



Elgoibarren jaio zen 1890. urteko martxoaren 13an.

Seroraren ahizpa zen eta Donostian tranbia gidatzen ibiltzen zen Paeoren arreba.

Ezaguna zen Plaza Hanclian taberna bat zuelako.

Gaurregun Iturri taberna dagoen lekuan zeszoen taberna denda modukoa ere bazen.

Cristinaren bezeroak emakumeak izaten ziren, 2. ehienak baserritarrak. Haiekin elikuaien eta beste produktu batzuen elkartrukean jarduten zuen.

Oraindik orain Plazako arkupeetan. Iturri tabernako hormetan, haserriarrek astoak lotzeko erabiltzen zituzten aroak ikus daitezke.

Argazkian Cristina Mugerza gaztetan, 1918. urtean, Montevideon zeQoen batean ikus daiteke.

Hirurogeita harnabost urte zituela hil zen 1965. urteko apirilaren 7an.

EXMAHE S.L.

MAKINA ERRAMINTA ZERBITZUAK ETA ESKLUSIBAK

BULEGOAK:

Azpilgoeta, 3
TEL. 75 50 93 FAX 75 51 21
20 850 MENDARO

ALMAZENA-TAILERRA:

Pedro tviuguruza, 25
TEL. 74 36 46
20 870 ELGOIBAR



M | T | Z | A | K

Elgoibartarrak, Euskadiko bigarrenak boloetan

Elgoibarko San Migel auzoko bolo taldea bigarren geratu da Euskadiko Bolo Txapelketan. Irabazleak Arrasateko Udala taldekoak izan dira. Euskadiko bolo txapelketa herri ezberdinetan jokatu da: Elgoibarren San Pedron, Markinan Barinaga auzoan, Eibarren Azolaberrin eta Elorrion. San Migeleko bolo taldea osatzen dutenak hauek dira: Jose Irusta, Javier Osoro, Xabier Loiola, Angel Ibarluzea eta Prudentzio Izagirre.

Pistako atletismo lasterketak Mintxetan

Pasa den larunbatean bezala, larunbat honetan ere, pistako atletismo lasterketak burutuko dira Mintxetan. Hasera ordua berdina izango da, goizeko 10,30ak. Oraingo honetan altura, luzera jauzia, jauzi hirukoitza, pilota jaurtiketa, 60 metro, 150 metro eta 300 metroko frogak egin beharko dituzte. Froga hauetan lortutako markak Euskadiko zein Gipuzkoako txapelketetan parte hartzeko baliagarriak izango dira.

Rugby ikastaroa

"Kirola euskaraz" programaren barruan rugby ikastaroa burutuko da datorren hilaren 17an, goizeko 10etatik 12etara bitartean Bergarako Kiroldegian. Irakaslea Eibarko Rugby taldeko entrenatzailea den Iñaki Ugarteburu izango da. Izena emateko 74 44 15ra deitu.



Jose Mari Fernandez:

"Lortu dudan errekorra jeitsi egin daiteke"

I Nola da posible 31' 34" segundutan Karakatera igotzea?

- Korrika igoaz eta gelditu gabe.

Zer entrenamendu egin duzu?

- Otsailean bizikletan ibiltzen hasten naiz eta irailean korrika eta mendian. Karakatekoa entzun nuenean hartarako entrenatzen hasi nintzen.

Eta 31minutu nola? Ondo ikusi nuen neure burua eta... Hala ere, lurra labaina zegoen.

I Zein izan zen unerik gogorre-na? - Haseratik argi neukan trenbideko balla lehena pasatu behar nuela horregatik azkar irten nintzen. Gainera nik banekien nondik joango nintzen eta atzekoek, berriz, ez zekiten nondik joango nintzen. Balla saltatu eta lasterketaren buruan jarri nintzen. Gogorrena apurtutako txabola bat dagoen bide-zidorra da. Hori korrika pasatzea lortzen baduzu dena egina dago, baina gelditzen bazara, akabo. Dena korrika igo behar da, suabe eta geratu gabe.

I Lehiakideak gogorrak ziren, ez? Bai, Iglesias-i nion beldurra, Mintxetan berarekin korritu dut eta Behobian pasatu egin ninduen. Bera gazteagoa da baina igotzean arina izatea inportantea da.

II 30 minututan ere igo izan zara. - Bai, Ego-Tokin korrika egiten nuen garaian. Orduan nere etxetik irten nintzen, Pedro Muguruzako



17tik. Goian 30:58 neurtu nuen. Baina denborak Plazatik neurtzen direla jakin nuen gero.

I Konpetizio modura planteiatzen duzu kirola? - Gaztetan ni eta beste lagun bat beti ibili izan gara mendira igo eta zein denbora egiten genuen neurtzen. Karakatera, Kalamuara, Morura, Urkora, Azkaratetik Hirukurutzetara eta beste batzuetara egiten dudan denbora neurtuta daukat. Hirukurutzetara ziur ez dakit baina lh 8m zirela uste dut.

I Ia urte osoa ematen duzu kirola egiten, ez? - Urtean 180 irteera bizikletan eta 40 bat egun mendian eta korrika egiten. Gainontzean trabesiak egin izan ditut, Elgoibartik Galiziara bizikletan 24 ordutan. Aurten, bi egunetan egin izan dudan Trebiñora trabesia egin nahi dut 24 ordutan, 110 km oinez mendirik mendi.

Zergatik horrelako "erokeriak"? - Abentura bat da neretzat,

retoak jarri eta gainditzea gustatzen zait. Masokismoa ere bada.

I Errekorra hausteko asmorik? - Lurra zikua egonda denbora gutxiagoan egin daiteke baina motibatua egon behar da.

- Adina: 31.
- Pultsazioak
- atsedenean? 36.
- Pisu? 70 kilo.
- Beste kirolik?

Taldekoak ezik, denak.

Cordon, Vilarchao, c.b. IDEKCDRAZIOA

MOKETAK, KORTXO BARNIZATUA, PVC ETA PARETAK, SINTASOLA, ZOLU INDUSTRIA1AK, GORTINA BERTIKALAK, GOTELE ERROTULAZIOA, PINTURA OROKORRA.

San Roke , 7 behea. Te1.74 28 74 - 74 05 70



Eskulanean saiatzen gara

Pastelak

Tartak

Izozkiak

Bouboiak

COZOTECIK

San Bartolome 34-35 Tel: 74 03 45

Karakateko erregeak

Jose Mari Fernandez Suso korrikalariak, 1980. urtean Pedro Etxeberria Mantxillak lortutako errekorra "desegin" zuen joan den larunbatean Karakateko aldapa gogorak 31 minutu eta 34 segundutan igo baitzuten. Jendez gainezka zegoen Karakateko gaina Fernandez noiz helmugaratuko zain.

Plaza Handiko frontoitik Karakateko buzoira dauden bi kilometro t'erdia Mantxillak baino ia zazpi minutu gutxiagotan burutzea lortu zuen Jose Mari Fernandezek. Esfortzuak eragindako sufrimendua aurpegian igartzen zitzaizolarik iritsi zen helmugara bertara igo zen makina bat herritarren

harriduraren artean. Atzetik Fernandezek jarritako erritmo gogorari eutsi ezin izan zion Jose Felix Iglesias heldu zen eta hirugarrenik Jose Antonio Agote. Lehendabizikoz burutu den lasterketa

honetan 11 herritarrek hartu zuten parte. Lehen edizio honen arrakasta ikusita Urgazi Triathloi Taldeak eta Morkaikok datorren urtean berriz ere Karakatera igoera antolatzeke asmoa agertu dute.



• **E** Irteeran Plazako Frontoian 11 korrikalariak hasteko prest. Helmugan, irabazlea Mantxillaren eskuetatik jasotako koparekin, lehiakideen txaloak jasotzen.

Jose Mari Fernandez ..	31:34
Jose Felix Iglesias	35:56
Jose Antonio Agote	37:47
Juan Fernandez	38:00
Javier San Martin	38:54
Jose Ramon Ortuoste ...	39:06
Ignacio Perez	39:34
Aitor ibabe	39:40
I igo Ortuoste	40:53
Aitor Atorrasagasti	44:20
Antonio Fernandez	44:22

litil711

FUTBOLA Mintxetan Larunbata 26

- 12,30: Eibartarrak Ath. Bilbao (Neskak)
- 15,15: Elgoibar - Beasain (Kadetea)
- 17,15: Elgoibar - Mondragon (2. errejionala)

Igandea 27

- 10,00: Urki A - Urki B (Jubenilak)
- 12,00: Elgoibar - Dunhoa (Neskak)
- 16,00: Elgoibar - Sto. Tomas Lizeoa (Jubenilak)

ESKUBALOIA Kiroldegian Larunbata 26

- 16,00: Elgoibar - Urnieta (Kadete neskek)
- 17,30: Elgoibar - Urnieta (Jubenil mutilak)

Igandea 27

- 12,00: Txankakua Elgoibar - Usurbil (Senior mutilak)

FUTBITOA Urasandin Igandea 27

- 10,00: San Roketarrak Rua Ametsa - Replastisa
- 11,00: Oraiko Cafe - La Maxia Kosakos Haritza
- 12,00: Veterans D. Kalimotxo King-Kong Aldavas

E M A I T Z

FUTBOLA

- Elgoibar 8 - Arantzazuko Ama 0 (Infantilak)
- Elgoibar 2 Ordizia 0 (Kadeteak)
- Haundi 4 Aurrera de Ondarroa 5
- Añorga 2 - Elgoibar 2 (Jubenilak)
- Mutriku 0- Elgoibar 3 (2. errejionala)
- Alde Zaharra 5 Elgoibar 2 (neskak)

ESKUBALOIA

- Leizaran 14 - Elgoibar 12 (Kadete neskek)
- Ordizia 10 - Elgoibar 27 (Kadete mutilak)
- Leizaran 15 - Elgoibar 24 (Jubenil mutilak)
- Jauja 14 - Txankakua Elgoibar 13 (Senior mutilak)
- Elgoibar 15 - Bidebieta 17 (Senior neskek)

FUTBITOA

- Karkis 3 Gruas Pana 2 Pedruskos 7 - Tropiko 2
- Sporting 4 - Berrogei Duro 1 Mimox 3- Rebel Urbi 0
- Univ. de Chile 4 - R. del Mundo 3 Foteru 2 Hunde Verboten 5

Antzerkia

Eroskiren 25, urteurrena dela eta, haurrentzako ikuskizun berezia antolatu du hilaren 27an, Eibarko San Andres jaien barruan.

OSKORRIK, KUKUBILTZO ANTZERKI TALDEAK ETA KEPA JUNKERAK

landutako musika eta herri tradizioari buruzko gaiak azaltzen ditu "Katuen Testamentua" izeneko antzezlanak. Emanaldia Ipuruako Kiroldegian izango da arratsaldeko hetan. Sarrerarem zenbatekoa 250 ptakoa da eta Elgoibarko Izarrako egoitzan eskura daitezke (Ubitarte 4, behea 74 16 26).

Ectd,a, jaialdia

Gaur ostirala, hilok 25, Eibarren bertso jaialdia izango da Udaletxeak eta "...eta kittor euskara elkarteak antillaturik. **GAZTEEN BERTSO JAIALDIA** izango da. Gai jartzaile gisa Jon Sarasua arituko da eta bere aginduetara honako betrsolari gazteek hartuko dute parte: Unai Agirrek, Igor Elorzak, Oihane Enbeitak, Iratxe Ibarak, Unai Iturriagak eta Maialen Lujanbiok. Jaialdio Orbea frontoian izango da gaueko 10,30etan hasita. Sarrerak 350 pta balio du (400 pta takilan).

6NEMEN9 izan da Euskadi Gaztea IV, Maketa Lehiaketako irabazlea

6NEMENILZ

taldeak Euskadi Gazteak urtero antolatzen duen maketa lehiaketa irabazi du. Asier Etxaniz, Alberto Gonzalez, Martzelo Mendizabal, Josu Iriondo eta Mikel Kornejok osatzen dute aipatu musika taldea. 6NEMEN9koek epaimahaiaren saria jaso dute. 600.000pta eta kontzertu bat Sorotan Bele talde hondarribitarrarekin. Guztira 300 maketa aurkeztu dira aipatu lehiaketara eta horien artean gailendu dira elgoibartarrak. Era berean, Iluna Beltz eta I.T. taldeek aipamen berezia jaso dute.

Bestalde, azaroaren 28tik abenduaren 2ra bitartean, Euskadi Gazteako entzuleek beraien botuak eman ditzakete gaueko 10 eta 11 bitartean irrati deitutuz. Horien artetik entzuleek saritutako talde irabazlea irtengo da. Honek 250.000 pta jasoko ditu.

Aurten Euskadi Gaztea Maketa



Lehiaketako IV. edizioa izan da. 1990ean EH Sukarrak irabazi zuen, 1991n Sorotan Belek. Iaz, berriz, Psikosis eta Hor Konpon taideen artean banatu zen lehen saria. Aurten, 6NEMEN9 talde elgoibartarrak jaso du. Zorionak!



Aranburu Bitxidenda

Urrezko bi erioju zozketatuko ditugu!

Zatoz eta 1.000 pezetako gastuagatik zu ere zozketan sartuko zara.

Zozketa 1995eko urtarrilaren 5an izango da dendan.

Manuel Alvarez, Ramon Aranburu (Aranburu bitxidendakoa) eta Jesus Romera.

San Frantzisko 26. ir 74 25 35

Garajeak

GARAJE ITXI BAT alokatzen dut Santa Ana 46 zenbakian.
74 13 67

GARAJE BAT alokatzen da pista heltzean.
tr 74 00 70 Iñaki

GARAJE BAT dut alokatzeko pista beltzaren azpian, Institutu parean. Marraduna.
17 74 39 19

GARAJE ITXI BAT alokatu nahi genuke, bertan kitarra eta baxua jotzeko. Lehenbaitlehen.
fr 74 22 70 Igor
Gauetz 9etatik 1 Oetara

Salerosketak

Ordenadorerako **MAHAI BAT** eta **Balkoirako ZAPATERO ARMARIO BAT** saltzen dut. Berri berria. Fondoa 45 zm., Altuera 1,40 m. eta zabalera metro hat.
lr 74 34 86

Uretako edo kanitxe antzeko **TXAKURKUME BELTZAK** salgai. Oso merke.
a. 74 14 63 Nekane
1,30etatik 2,30etara

GIMNASIA EGITEKO BANKO BAT SALTZEN dut. Abdominalak, arrauna, e.a.... egiteko balio du.
s' 74 29 52
Gauetz 8- 1 Oetara

EKONOMIKA BAT saltzen da. Labe eta guzti. Berria.
74 09 86
Deitu arratsalde 8,30etatik aurrera.

"Ingeles" tipoko **KOTXE KAPOTA** erdiberria, eta **MOISES BAT** salgai ditut.
lr 74 10 42

Lana

PEDAGOGIAN lizentziatuak eta 6 urteko esperientziarekin, **OHO** eta **REMeko** klase partikularrak ematen ditu euskaraz zein gaztelaraz.
Maite
74 39 24

PSIKOLOGIAN **LIZENTZIATUA** naiz eta **OHOko** klaseak ematen ditut. Emaizta onak
s' 74 14 14

Idazkaria eta enpresarialesen diplomaturia, informatika ezagupenekin edozein ofizina lan egiteko prest dago salmenta ezik.
"a" 74 39 89 (Mari Karmen)

HAURRAK ZEIN NAGUSIAK ZAINDUKO NITUZKE. Etxeko lanak egiteko ere prest nago.
74 21 88 Pilar

Neska euskaldunak **ETXEKO LANAK** egin edota **HAURRAK ZAINDUKO** lituzke.
"a" 10 06 23

Klase **PARTIKULARRAK** ematen diet **OHOko** haurrei.
le 74 28 53 Lorea

HAURRAK ZAINDU eta **ETXEKO LANAK** egiteko prest nago. Astelehenetik ostiralera.
Er (94) 682 78 18 Iratxe

TITULUDUN ERIZAIN euskaldunak gaixo edo pertsona nagusiak zaindukt) lituzke gauetz edo egunez, etxean edo ospitalean.
74 02 33 Marta. Goizez

MARRAZKETA TEKNIKOko klaseak ematen dira. **COU, UBI, IMH,**
z' 74 17 60 Iñaki
74 34 01

HAURRAK ZAINDUKO **GENITUZKE**, astegunetan arratsalde eta astebukaeren egun osoz eta gauetz.
s' 74 09 85 Nuria/Ana

ETXEKO LANAK, EGIN ETA NAGUSIAK EDO HAURRAK ZAINTEZKO pret nago.
fr 74 32 57 Maria Eugenia

Etxebizitzak

ETXE BAT ALOKATU EDO SALTZEN DUT Torreviejan (Alicante). Bungalow. Altzariak eta garajea.
o 74 24 26 Domingo

ETXE BAT ALOKATUKO nuke. Ez da handia izan behar. Ez zait axola non.
lr 74 44 04 Ana (Gauetz)
12 16 02 Maite (Goizez)

Elgoibarren PISU BAT KONPARTITZEKO lagun baten beharrean gaude.
65 38 76 Olatz

PISU BAT SALTZEN DA Mutrikun. I 15nr=, itsasora begira eta gela guztiek kanpoko aldera ematen dute.
11 60 41 20
Arratsalde 8etatik aurrera

Bestelakoak

Perla urdinak dituen **PULTSERA BAT** galdu dut. Aurkitzen duena saritzeko prest nago.
Er 74 05 74 Maite

2. **BBBko GEOGRAFIA LIBURU BAT GALDU** **NUEN** hilaren 4ean Liburutegian.
Gaztelaniaz.koa. Topatti duenak deitu.
a 74 21 86ra.

CARITASEK BUTANOZKO SUKALDE BAT eta erropak aordetzeko **ARMARIO BAT** behar ditu.
a 74 12 57
74 15 09

OSASUNA

Anloulategia:
Larrialdiak. 461111
Txanda hartzeko 743354
Planning 742950
Alkoholiko Anonimoak. 740385
D.Y.A (anbulantzia) .464622
Gurutze Gorria 743864
Mendaroko Ospitala 756264
Drogomenpekotasun 741008
Odol Emaileak 743936

GARRAIOAK

Eusko Trenbidea. 740442
PESA (Eibar) 112131
Taxi Geltokia 740898

UDAIA

Euskara Zerbitzua 744366
Kirol Zerbitzua 744415
Kultura Zerbitzua 742158
Mendaroko Udala ., 756100
Ongizate zerbitzua 743736
Udaletxea 744050
Udaltzaingoa 741394

BESTELAKOAK

Caritas 740442
Elgoibarko Izarra 741626
IM1 744196
Kontsumo Bulegoa 743088
Liburutegia 742525
Musika Eskola 742145
Mintxeta 744315
Parrokia 740042
Polikiroldegia 741361
Postetxea 744547

HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza... 740296
Zaharren Biltokia 740526

IKASTETXEAK

Herri eskola 74 08 79
I.M.H 74 41 32
Institutua 74 02 67
Ikastola 74 44 41
L.H.I. 74 44 80
Pilar Ikastetxea 74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN 74 41 12
El Diario Vasco 74 40 73
El Mundo 74 22 67
El Correo Espariol 74 10 82
Egin 11 01 21
Deia 74 44 57
Zazpiki 74 34 74

25 OSTIRALA

20,00 HITZALDIA

Gaia: Presoen egoera eta torturak.
Hizlariak: Itxaso Idoiaga eta Iñaki Iturri.

✓ Kimetz elkartean

Antolatzailea: Gestorak.

22,15 ZINEA

"Cuatro bodas y un funeral"

1 LARUNBATA

10,30 PISTAKO ATLETISMOA

✓ Mintxetan

Antolatzailea: Mintxeta-Txankakua

11,45 IRRATSAIOA UDALETXETIK

18,00 PRESOEI OMENALDIA

Gozategi trikitilariak eta bertsolariak. Segidan manifestazioa.

✓ Maalan

Antolatzailea: Gestorak.

19,30.22,15 ZINEA

"Cuatro bodas y un funeral"

IGANDEA

10,30 BANDA KO HILDAKOEN MEZA

✓ Santa Klarako komentuan.

Jarroin BANDAREN KALEJIRA

12,30 BANDAREN KONTZERTUA

✓ Herriko Antzokian

16,30 ZINEA

"Agarralo como puedas"

18,30 DANTZALDIA GELATXOREKIN

✓ Zaharren Biltokian

19,30.22,15 ZINEA

"Cuatro bodas y un funeral"

28 ASTELEHENA

20,30 NAZIOARTEKO IV. XAKE TXAPELKETAKO SARI BANAKETA

■ Kultur Etxcan

19,30.22,15 ZINEA

"Cuatro bodas y un funeral"

29 ASTEARTEA

9,00.12,00 IRUD1 BIZIAK

Ertainetako ikasleei zuzendua

"CorazOn indomable"

✓ Herriko Antzokian

Antolatzailea: Drogomenpekotasun Prebentziorako Udal Zerbitzua.

19,00 ZINEA ETA OSASUNA

Ertainetako gurasoei zuzendua

"CorazOn indomable"

✓ Herriko Antzokian

Antolatzailea: Drogomenpekotasun Prebentziorako Udal Zerbitzua.

22,15 ZINEA

"Agarralo como puedas"

(Ikuslearen eguna)

ASTEAZKENA

20,00 IKERFOLKEN HITZALDIA

Gaia: Jantzi Herrikoiak eta jai tradizionalak

✓ Kultur etxean

Antolatzailea: Haritz Dantza Taldea

1 OSTEGUNA

9,00 1RUDI BIZIAK

OHOKo ikasleei zuzendua

"Hara nor dabilen hizketan orain"

✓ Herriko Antzokian

19,00 MAHAINGURUA

Gaia: Elgoibarko jubilatua

✓ Kultur Etxean

Antolatzailea: Elgoibarko Izarra

1111 Baren Nazioarteka eguna

19,00 KONZENTRAZIOA

✓ San Frantzisko iturrian

Antolatzailea: Errotatxo

Egun guztian zehar mahai informatiboak

OSTIRALA

22,15 TXOTXONGILOAK

"No tengais miedo de los grandes animales"

✓ Herriko Antzokian

Sarrera: 350 pta.

txandak

FARMAZIAK:

26, larunbata: Yudego

27, igandea: Yudego

28, astelehena: Bidasolo

29, asteartea: Bidasolo

30, asteazkena: Bidasolo

1, osteguna: Bidasolo

2, ostirala: Yudego

OKINDEGIA:

27, igandea: FOTERO


ZINEA

"Cuatro bodas y un funeral"

Zuzendaria: Mike Newell.

Antzezleak: Hugh Grant, Andie Macdowell, Simon Callow, Kristin S. Thomas.

8 lagun, 5 apaiz, 11 ezkontza jantzi, 16 amaginarreba eta aitagarreba, 2.000 txanpain kopa eta elkarrekin egon behar duten baina banandurik dauden 2 pertsonen arteko istorioa da. Charles, 32 urteko ezkongabe xarmantgarri bezain burutsua da. 32 urterekin seriean egindako monogamoa dirudi: nobia ugari izan ditu baina ezin du inorekin konpromezurik hartu. Izakera ingelesak ez dio sentimenduak azalerazten uzten. Behin, eliza batean, larunbat batean, neska amerikar bat ezagutuko du, inor baino ederragoa, argiagoa eta bihotz gogorragoa.



**KOLORETAKO
PUBLIZITATEA**
preziorik onenentan.

2.000 pezetatik
egin dezakezu
PUBLIZITATEA.



BARREN

**ELGOIBAR, ALTZOLA
eta MENDARON
PUBLIZITATEA**
egiteko modurik
ERAGINKORRENA.



BARREN 3.200
BUZOITARA sartzen da eta
12.000 IRAKURLE ditu.

